

ARRASATE / Pello Añorgarekin ikastaroa martxoan, Udal Liburutegian

Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan, 'Nola sortu espazioak elkar entzuteko, eta nola aukeratu eta kontatu liburuak' ikastaroa antolatu dute udal liburutegian. Ikastaroa Pello Añorgak zuzenduko du eta 0-6 adin tarteko gurasoei zuzenduta dago. Ikastaroa martxoaren 15, 21 eta 22an izango da arratsaldeko 17:30etik 20:15 arte. Izen ematea Kulturaten egin beharko da eta mugatuta dago, hogei pertsonentzat. Informazio gehiago Udal Liburutegian.

Bularretik mintzora egitasmoa urrian jarri zuten martxan Arrasateko Udal Liburutegian, irakurketa sustatzeko helburuarekin. Haur txikien (0-6 urte) guraso eta hezi-tzaileei zuzentzen zaie, haiek irakurketa ohiturak sortzeko beren inguruko haurrengan. Irakurketa bitartekariei, guraso, hezitzaile eta bibliotekariei, egitasmoak eskain-tzen die egitarau ordenatu bat baliabideak, formazioa eta informazio aukerak luzatzearekin batera.